

P. BORDAZARRE "ETXAHUN" KOBLAKARIAREN OROIZ

*Bizia llaür hiltzia segür hortzaz ez gira düdatzen
Denek beitakigü heriuak nihur ez diala pharkhatzen*

Kantuz horrela aitortu zuen Pierre Bordazarre, "Etxahun" Iurikoa, itzali zaigu. Zuberoako ohitura zaharren euslea, gazte zelarik oinak arin dantzari agertu zuen bere nortasuna, adinean sartzean xirularia ez ezik koblakari iharduna da herioak eraman arteraino. Bere kantetarik oso ezagunak dira Agur Xuberoa, Goizian argi hastian eta Sorlekhura itzultzia. Horrez gainera, pastural egilea zen, aintzinako ohitureri jarraituaz bederatzi obra burutuaz: Etxahun (1954), Matalaz (1955), Berterretx (1956), Santxo Azkarra (1965), Le comte de Treville (1966), Txikito Kanbo (1967), Pette Beretter (1972) eta azkenik Ximena eta Iparragirre.

Urrilaren batean hil zen Pabeko ospitalean eta bere sorterria den Irurin ehortzi zuten. 1908ko maiatzaren 28an jaioa zen.

Gaztaroan herbesteetan bizia zen; baina, Orhiko xoriak, Orhi maite. Zuberoa laket zitzaion eta bere barnean Basaburua partea.

*Agradable dirade Larrañe, Ligi eta Sante-Grazi
Aiphatürik dira Atharratze, Alzai, Aloze, Lakharri
Zalgize ere aski plazent da, Ozazek badü batzarri
Bena ooren maithagarriena othe ez deia Iruri.*

Baina hor ez zen mugatzen bere Euskal-Herriaganako maitasuna. Duela bi urte liburu eder bat eskaini zigun, *Etxahun-Iruri khantan* deritzana eta artikulu bat eskaini nion "Hoja del Lunes"-en

(29-VIII-1977). Orduan agertu nuen bezala, ikuspegi zabala zuen gure herriagan :

*Goxo da bizitzia Xibero gañian
Mendi horien artian trunkilitatian
Hargatik aithortzen dit mügaz bestaldian
Badirela xokho hunak, itxas bazterrian
Khantatzera banua huk phentsamentian*

Gure erresumak goraipatuaz, honako agur honekin eman zuen bertsoen bukaera :

*Kunserba zitzaiela zelüko Jinkuak
Bizkai ta Gipuzkoako probintzia goxuak
Ingana zitzaiela luzaz itxasuak
Guretako begiratüz bethi ber amodiua
Zirekilan beikira oso Xiberua*

Sentitu ere abertzaletasun osoz sentitzen zuen hegoaldekoen-
tzako maitasun hori, erro errotik herrianganako maitasunez beterik
bizi bai zen. Bere kantetan maiz agertzen denez, Orhiko txoria-
rekin buruabat egiten du :

*Sen-Jüsefen ermitatik
Goraintzi bat Uskal-Herria
Zure zerbüttxari fidel
Girade Orhiko-txoriak*

Maitasun hontan mugazandiko askok ohi baino haratako joanen
zen, zeren koblakariaren barne gogoaz zintzoa izaki. Horrek eragin
zion ondoko kanta hau osatzera :

*Jeik' hadi Eüskadi eta mintza hadi
Ozenki gure gazteriari
Behardiela bethi fidelki kunserbi
Gure usantxa zahar horik*

Zenbait erresumatako giroan berri jakin zuen gaztarotik, he-
rrialde askotan bizi izan baizen, baina azkenerako Zuberoan pau-
satu zen, Orhiko xoria bezala. Santa-Garazikoa hartu zuen emaz-
tetzat eta habi goxo bat lortu zuen, pobre baina zoriontsu biziko
zena. Arbasoen ohiturari jarraituz, pasturalgile, pasturalen zuzen-
dari eta koblakari. Apaltasunezko zorionetik honela kantatu zigun;

*Nik badit etxe txipi bat Gaindañeko lurretan
Eniz aberats hargatik alagera bizi nizan
Zunbat nahi untsa diren beste herri aizuetan
Düda dütt nik izan ditin gü bezaiñ plazer etan
Akordian bizi gira herritarren artian
Ahal oroz libertitüz zaharrak gaztekilan
Igarailek ikhus gitzela bozkarioz oro khantan
Gaindaiñtarrak Gaiñdaiñtarsak Gaiñdaiñeko kharrikan*

Hainbeste lan ederren guraso zen Etxahun Irurikoa, bere me-
rezimenduegatik aspaldi izendatu zuen Euskaltzaindiak bere legun-
tzaileen arteko. Bat bateko bertsolaritza ez zen bere ekintza be-
rezietan hain egoki moldatzen zena, baina hala ere zenbait saio
egin zituen hortaz, plazetan Mattin eta Xalbador zenakin kantatuaz.
Honegatik, bertsolari elkarteak helduden urtarrilean omenaldia
eskaitzeko hautatua zuen. Bere bizitzaren zahartzaroan egin behar
zitzaion omenaldi hori, orain, hilondokotzat egin behararen pena
dugu. Beragandik sortu zen "Agur Xuberua" hainbeste aldiz kan-
tatu duen milakak euskaldunak oroi deitezela omenaldiko egun
hortan, bera goretsiz jar dezaten anaitasunez "Aintzinian gora Es-
kualdüin bandera", bere gogoaren gisara.

OTSALAR